




etxebizitzaren aldeko  
borrokarako

# PROPO SAMEN POLITI KOA





Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista  
2023

# 1

Sarrera:  
Euskal Herriko  
Etxebizitza  
Sindikatu Sozialista

4. orrialdea

# 3

Estatu Sozialista  
kalitatezko etxebizitza  
doako eta unibertsalaren  
berme bakar gisa

16. orrialdea

# 4

Etxebizitzaren aldeko  
borrokarako proposamen  
politikoa

20. orrialdea

# 2

Testuinguruaren analisia:  
etxebizitzaren arazoa

8. orrialdea

# SARRERA:

Euskal Herriko Etxebizitza  
Sindikatu Sozialista

# 01

Azken hamarkadetan, etxebizitzaren arazoaren okertzearekin batera, langile-klasearen bizi-baldintzen aurkako etengabeko erasoei erantzuten saiatu diren hainbat ekimen sortu dira, planteamendu politiko, estrategiko eta organizatibo desberdinekin. **Etxebizitzaren aldeko borroka heterogeneo horrek** etxebizitzaren alorrean autodefentsa antolatzearen beharra mahaigaineratzea lortu du eta, bere garapenarekin batera, **gainditu ezin diren muga estrategiko eta politiko batzuk utzi ditu agerian.**

Esperientzia horietatik bi irakaspén nagusi ateratzen ditugu, zeintzuen itzulpen estrategikoak berehalako zeregin batzuk ezartzen baitizkigu: Lehenik eta behin, **etxebizitzaren aldeko borroka burgesiaren instituzioetatik kanpo antolatzearen beharra**; kapitalisten, jabeen eta klase-ertain errentatzailearen interesekiko proletalgoaren erabateko independentziarekin. Bigarrenik, bizi-baldintzen defentsa hutsak gizartea eraldatzeko programa politiko jakin bat elikatzen ez duela ondorioztatzea, eta beste edozeinen erreforma programa indartzen buka dezakeela. Zentzu horretan, **etxebizitzaren problematikan esku-hartzea lortu behar dugu, artikulatutako indarrak antolakuntza eta programa politiko argi baten barruan metatuz**: klase dominazioaren ezabapena eta Estatu Sozialistaren eraikuntza helburu duena. Funtsean, etxebizitzaren arazoaren okertzeari programa komunistaren gaurkotasunaren bidez erantzungo dion antolakunde bat behar dugu.

Euskal Herriko Kontseilu Sozialista ezberdinetatik aurrerapauso bat eman eta *Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista* sortzen dugu, zeinak bi zeregin horiei erantzun nahi dien, etxebizitzaren arloan ofentsiba kapitalistari aurre egingo dion antolakuntza nazio mailan artikulatuz eta, konfrontazio horretatik, komunismoa politikoki, kulturalki eta organizatiboki zabaltzeko prozesua elikatuz. Hori dela eta, dokumentu politiko honen xedea da **etxebizitzaren arazoari dagokionez egin dugun koiunturaren analisisa laburtzea eta etxebizitzaren aldeko**

**borrokarako proposamen politiko baten lehen oinarriak jartzen saiatzea.** Eduki hauek berrikusi eta osatuko dira Sindikatu Sozialistaren esperientzia eta ezagutzak handitzen doazen heinean.



# TESTUINGURUAREN ANALISIA:

Etxebizitzaren arazoa

# 02



# KRISIA ETA SOLDATEN ARPILATZEA

**G**izarte kapitalista **dimentsio historikoko krisi batean dago murgilduta, non burgesiaren mandatua irabazi-tasa ego-kietara itzultzea den, langile-klasearen aurkako ofentsiba gauzatuz eta soldatak arpilatuz.** Irabazia sistema kapitalistaren motorra izanik, krisiak izaera ekonomikoa izateaz gain, gizarte osora hedatzen da, krisi politiko, sozial, beliko, ekologiko eta kultural bilakatuz.

**Soldatak arpilatzeko funtsezko eremuetako bat, hain zuzen ere, higiezin sektorea izan zen, eta, zehazkiago, etxebizitza.** Ildo horretan, Espainiako Estatuaren kasua paradigmaticoa da: 2008an, nazioarteko krisi kapitalista betean, higiezin burbuila lehertu egin zen, eta horrek paradigma aldaketa erradikalak ezarri zituen bankuen eta higiezin sektorean, Estatuak berak finantza-eliteen mesedetan gauzatuak. Azken hamarkadan, higiezin merkatua erabat berregituratu da, bankuek pisua galdu dute eta nazioarteko finantza-burgesia handiaren eragile berriak agertu dira, hala nola putre funtsak eta *socimi*-ak, zeinen negozioa merke erosi eta garestiago saldu edo alokatzea baita. Aldi berean, alokairuen merkatua sustatu du Estatuak, Alokairu Merkatua Sustatzeko 4/2013 Legeak edo krediturako sarbidea murrizten duten hipoteka-araudi berriek bultzatuta, hipoteka eredua klase ertain-altuetara bakarrik mugatuz. Alokairuko etxeen kopurua hazi egin zen, 2020an % 24,9ra iritsiz, eta errenten prezioa etengabe igo da 2013tik. Oinarri horiek ezarrita, bizitegi-eraikuntza inbertsiorako esparru errentagarria da berriro, oraingoan *build to rent* delakoarentzat; hau da, alokairurako etxebizitza eraikuntza, bai merkatu librearentzat, zein, batez ere, arautuarentzat eta errenta baxueneko biztanleentzat. **Fenomeno horien guztien azpian, aberastasun transferentzia izugarria aurkitzen da,** soldata zeharka murriztuz, burgesiaren eskuetara pasatzen dena eta irabazia itxuran handitzen duena.

Hala ere, etxebizitzaren auziaren inguruan klase sozial guztien interesak mugitzen dira. Esparru horretan, hain zuzen ere, irabazien eta errentaren arteko banaketa kuoten inguruan burgesen arteko borrokak sortzen dira, eta **klase ertain errentatzailearen interesak aktibatzen dira**. Azken hori, bere erdibideko izaera dela eta, anbigua da etxebizitzaren arazoaren aurrean: proletarizazio prozesuak sakonki eragiten badio ere, higiezinaren merkatuan oso eragile garrantzitsua izaten jarraitzen du, gutxienez Estatu espainiarrean eta EAEn, non alokairuko etxebizitzaren %83 inguru jabe txikienak diren. Klase ertainaren bereizgarri soziologikoa jabetza maila txikian eskuratzea da, kapital gisa independizatzeko gai ez izan arren, juridikoki bere jabetzez balia daiteke; merkatura atara ditzake etxeak, hasiera batean proletarizazioaren mehatxua saihesteko, eta bigarren une batean errentista gisa bere posizioa finkatzeko.

Funtsezkoa da azpimarratzea **klase ertainak bere diru-sarrerak proletalgora arpilatuz osatzen dituela**. 2013 eta 2019 artean alokairuen prezioak % 50 igo badira, horrek kontrako eragina du jabeen eta maitzerren artean: klase ertaineko jabeek diru-sarrerak proportzionalki handitu dituzte erosketen, herentzien eta alokairuen bidez, eta proletalgora, etxebizitza eskuratzeko modalitatea normalean alokairua izanik, proportzionalki pobretu egin da. Are gehiago, errentista gisa, klase ertainak burgesia handiak baino kontrol- eta presio-mekanismo handiagoak erabili behar ditu. Putre funtsak abokatu ejerzituak dituen tokian, klase ertaineko etxejabeek mehatxu, presio eta legez kanpoko mekanismoen erabilerara jotzen dute. Horrela, **interes-komunitate politiko bat sortzen da finantza-burgesia handiaren eta erdi-mailako klaseen artean**, jabetza pribatuaren defentsari, desarautzeari eta prezioen gorakadari dagokienez.

Hala ere, interes politikoen batasuna egon arren, **jabetzak metatzeko prozesua areagotu egiten da krisi garaian**, eta kapitalista handien boterea handitzen da klase ertain errentistaren kontura. 2023ko hasie-

rako datuen arabera, espainiar Estatuan etxebizitzaren salerosketen erdia baino gehiago hipoteka-maileguaren beharrik gabe itxi dira. Hau da, inbertsio gisa erosi dira, eta ez erabilera propiorako. Horrek adierazten digu jabetzak gero eta gehiago kontzentratzen ari direla burgesiaren eta klase ertaineko geruza altuenen eskuetan.

Esandako guztia honela laburbil daiteke: etxebizitzaren sektorea aberastasuna transferitzeko iturria da, soldatetatik errenta altuenetara, eta irabazia urria denean, burgesia handiak eta klase ertain errentatzaileak krisiaren pisua proletar goari transferitzen diote. Prozesu orokor hori egiturazkoa izan arren, higiezinaren merkatuan garatzen hasi diren joerak oso konplexuak dira. **Badira joera horiek bizkortu edo geldiarazi ditzaketen faktoreak:** balizko finantza-krisia, estatuen gehiegizko zorpetzea, politika burgesaren marjinak, prozesua leundu edo bortitzago egin dezaketenak...

**Euskal Herriari begiratzen badiogu,** egiturazko joerak berdinak izan arren, **ikus dezakegu badirela kontuan hartu beharreko aldeak,** proletarizaziorako joera lausoagoa adierazten digutenak. Adibidez, espainiar Estatuaren kasuan, 100.000 biztanleko kaleratzeak 86,86 izan dira 2021ean eta 80,37 2022an; Hego Euskal Herrian, berriz, 38,51 eta 34,73, hurrenez hurren. Alde erlatibo horrek kausa konplexu batzuk dituela ondoriozta dezakegu, elkarren artean lotzen direnak, besteak beste: klase ertainak euskal gizartean oraindik ere garrantzi handia izatea, erakunde autonomikoen papera eta Euskal Herriko higiezinaren merkatuaren egitura bera, batez ere jabe txikiz osaturikoa.

# KONTSUMOAREN POLARIZAZIOA: MISERIAZKO ETXEBIZITZA SISTEMA BATERANTZ

Etekinak handitzeko asmoz, **alokairuen prezioak igotzen dira**. EAEn alokairuen prezioa 2022tik %4,7 igo da 2023an; Nafarroan, 2023an alokairuen prezioa 2015ean baino % 50 garestiagoa da, eta Iparraldeko kostaldean, bigarren etxebizitzan edo alokairu turistikoaren ondorioz, Euskal Herriko alokairurik garestienak daude. Etekinak handitzeko beste formula bat **higiezin eta zerbitzuen kalitatearen kaskartzea da**. Jabeek gehiago ordainarazten dute baldintza okerragoetan dauden etxebizitzengatik, uko egiten diote kalteak ordaintzeari, ez dira arduratzen jabetzak mantentzeaz, komunitate-kuotaz, horniduraz eta, batzuetan, OHZ maizterrek ordaintzen dute. Gainera, alokairuko **etxebizitzak eskuratzeko irizpideak gogortzen dituzte** –irizpide arrazistak, ez-ordaintzeen zerrendak...–, bai eta hipotekak eskuratzeko baldintzak ere.

**Prozedura horien guztien emaitza kontsumoaren polarizazio gero eta handiagoa da**, etxebizitza-merkatua bi polotan banatzeraino: alde batean, luxuzko kontsumoa, burgesiara eta klase ertaineko goi-mailetara mugatuta, eta bestean, pobreentzako kontsumoa, proletalgoari eta deskonposizioan dauden klase ertaineko gero eta sektore gehiagori zuzenduta. **Polarizazio-prozesu hori bermatzeko, proletalgoa dagoeneko ez dagozkion merkatu-modalitateetatik kanporatua izan behar da**. Hori dela eta, ez ordaintzeek eta etxegabetzeek gora egin dute; 2022an 771 gauzatu dira EAEn eta 230 Nafarroan. Maizter “ez-desiratuak” kanporatzea bilatzen duten hainbat modu ere ugartzen dira: sasoiko alokairuak, logelak, aterpetxeak edo bestelako kontratuen orokortzeaz ari gara, jabeek askoz erraztasun gehiago eskaintzen dizkietenak eta maizterrak babesik gabe uzten dituztenak. Halaber, in-

darrez kanporatzeko praktika antiproletarioen gorakadaz –desokupazio-enpresak, poliziaren konplizitatea legez kanpoko etxegabetzeen aurrean, okupazioen aurkako kode penala gogortzea...– eta horien normalizazioaz eta zuritzez ere hitz egiten dugu.

Proletalgoa pixkanaka merkatu libretik kanporatzen da, edo erabat baldintza eskasetan mantentzen da bertan. Etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunen eta beren etxeen kalitateak okerrera egin izanaren aurrean, **Estatu burgesak joera hori irauli beharrea, instituzionalizatu eta legeztatu egiten du.** Testuinguru horretan, joera berriak garatu dira etxebizitzaren higiezinaren merkatuan, eta, horien arabera, **miseriako etxebizitza-sistema berri bat sortu da biztanle pobreenentzat**, oso inbertsio-hobi errentagarria izango dena. **Estatuak berak, apurka-apurka, etxebizitza babestuen kudeaketa erakunde pribatuei lagatzen die**, normalean finantza-eliteekin harremana dutenei. Behartsuentzako etxebizitzaren merkatu berri hori bereziki errentagarria da, Estatuaren babesagatik –etxebizitza eskuragarriei eskainitako pizgarriei esker jabeei onura fiskalak eskaintzen dizkie; batzuetan, hasierako kostuak bere gain hartzen ditu, eta, beste batzuetan, ez ordaintzetik eratorritako galeren karga ere bai.– eta etxebizitzaren kalitate txarragatik.

## SOZIALDEMOKRAZIAREN FUNTZIOA

**E**txebizitzaren arazoari buruzko proposamen sozialdemokratek bi oinarri dituzte: **batetik, jabetza pribatua zabaltzea aberastasuna birbanatuz, eta, bestetik, Estatua, jabetza txikiaren defendatzaile izatea finantza-kapital handiaren nazioarteko interesen aurrean.** Beraz, sozialdemokraziaren proiektu politikoak prole-

tarizazio-prozesuaren ondorioei erantzun nahi die jabetza txikiaren eta hortik eratorritako errentismoaren defentsarekin, baita krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak birbanaketa-politikekin arintzeko promesarekin ere. Hitz gutxitan esanda, sozialdemokratarentzat arazoa ez da prezioa, baizik eta “gehiegizko irabazia”; errentismoa ez da problematikoa, baizik eta espekulazio basatia, edota klasearen arabera bereizitako kalitatea duten etxebizitzak egotea ez da eragozpena, proletalgoak miseriazko bizitoki bat duen bitartean. Hala ere, krisi garaian, programa sozialdemokrata benetan garatzeko aukerak murriztu egiten dira. Estatu burgesen bidez gobernatu duten aldietan, azkenean, kapitalaren mandatuak aplikatu dituzte, ofentsiba kapitalista ahalbidetuz eta, gehienez ere, klase ertainaren zati baten interesak babestuz.

Proletarizazio-prozesua joera saihestezin eta natural gisa ulertzen dute eta proletalgoaren bizi-baldintzen alde hartzen dituzten neurriak aringarri hutsak dira. Zentzu horretan, sozialdemokraziarentzat etxegabetzeen moratoria eta Etxebizitzaren Legea arrakasta politikoa izan dira. Etxegabetzeen inguruko gatazka desaktibatu dute, errentarien klase ertainaren babesa irmo mantenduz, eta legeak anbiguoki eginez jabeei jarduteko tarte nahikoa uzteko eta prezioen igoeran modu erabakigarrian ez eragiteko. Politika sozial horiek dira, sozialdemokraziarentzat, Estatu burgesak aberastasuna birbanatzearen alde eta gizarteko estraturik pobreenen alde jarduteko duen gaitasunaren ebidentzia, aldi berean jabetza pribatua salbatuz. Errealitatetik urrun dago hau. Ekimen horien ondoriorik nabarmenena, sozialdemokraten borondate politikoa bestelakoa bada ere, **Estatu burgesa indartzea eta proletalgoaren aurkako praktika eta diskurtsoak hedatzea** da. Hau da, klase ertainen estatus sozial eta ekonomikoaren defentsa Estatu tresna nagusi gisa hartuta egiten da, eta beti proletalgoaren kontura. Horren adibide dira, modu diskretuagoan aurrera eraman dituzten erreforma anti-proletarioak, hala nola, okupatutako higiezinen hustea bizkortzeko lege-proposamena. Horregatik guztiagatik, krisi-testuinguruan, politika

parlamentarioaren jarduteko marjina gero eta txikiagoa dela eta etxebizitzaren arazoaren konponbide eraginkorra ez dela politikari profesionalen eskutik etorriko.

# ESTATU SOZIALISTA

kalitatezko etxebizitza,  
doakoa eta unibertsala  
lortzeko modu bakarra

# 035



**E**txebizitza bizirauteko oinarrizko bitartekoa da, eta, beraz, ezein gizartek bermatu behar lieke beren biztanleei etxebizitza bat. Gizarte kapitalistak ere hala egiten du, betiere haren oinarrian dagoen balio-legeak ezartzen dituen mugen barnean, hau da, etxebizitza burgesiarentzako irabaziak ekoitzi eta proletalgoaren desjabetzea produzitzen duen merkantzia bat izanik. Guk “etxebizitzaren arazo” esaten diogun hori, hortaz, sistema kapitalistaren oinarrietatik sortutako arazo bat da. Etxebizitza eskuratzeko beharrezkoa bada dirua izatea, klase sozialaren araberakoak izango dira beti etxebizitzaren kalitatea eta etxebizitza bat izateko aukerak.

**Arazo hori modu efektiboan deuseztatzeko modu bakarra sistema hau bera abolitzea da. Are gehiago, kapitalismoa termino positibotan abolitzeko modu bakarra sistema sozialista bat ezartzea da, kalitatezko etxebizitza doako eta unibertsalak ezaugarritua.** Bizitzeko beharrezkoak diren ondasunei sarbide unibertsala izateak, proletalgoaren desjabekuntza historikoarekin bukatzea esan nahi du; doakotasunak langile-klasea aberastasun sozialaz birjabetzea galdegiten du, eta klaserik gabeko gizarte baten eraikuntza, non aberastasuna denona izango den. Bestalde, etxebizitzaren kalitatea mendeetako soldatapeko esklabotzaren ondorioa da, burgesiaren dominazioaren pean ekoitzi den aberastasun sozial ikaragarriaren fruitu, azkenean espropiatzaileei espropiatua izango dena eta sozialki antolatu eta banatuko dena.

Estatu burgesa, ekonomikoki eta politikoki kapitalari azpiratua dagoena, irabazien beharren arabera antolatzen ditu baliabideak, aldiz, Estatu Sozialista batek baliabide horien guztien potentzialitatea gartuko luke, eta bestelako arrazionaltasun baten zerbitzura jarriko lituzke. Etxebizitza-sistema hobeagoa izango litzateke, eta aukera emango luke gaitasunak, tresnak, azpiegiturak edota teknologiak beste modu batera planifikatzeko eta zentralizatzeko; finean, gizarteak ekoitzitako aberastasun material eta inmaterial guztia berrantolatzeko aukera. Hala

ere, gaur gaurkoz, horrek ezinezko utopia dirudi proletalgoaren gehien-goarentzat, politikoki eta ideologikoki burgesiari menderatuta baitago. Hori horrela izanik, gehiengoari gizarte determinatu baten mugak, kapitalismoarenak, gainditu ezinako limite objektiboak bailiran agertzen zaizkio.

Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu Estatu Sozialista eraikitzeke baldintza politiko, kultural eta ekonomikoak sortzea. Proletalgoaren bizi-baldintzak defendatzeko gaitasun efektiboak garatu behar ditugu, eta indarrak metatu bizi-baldintza horiek uneoro mehatxatzen dituzten forma sozialekin amaitzeko. Horri **autodefentsa sozialista** esaten diogu, eta gaur egun hiru zeregin nagusi biltzen ditu etxebizitzaren aldeko borrokan: **programa komunista hedatzearen aldeko borroka kulturala, bizi-baldintzen defentsa eta hobekuntza efektiboa, eta** irabazi kapitalista erauzteko eta ordena sozial berri batean txertatzeko gai izango diren **instituzio proletarioen sorrera eta egonkortzea**.

Horregatik **aurkezten dugu etxebizitzaren borrokarako proposamen politiko bat, programa komunistak gaurdanik martxan jartzen ditugun borroka guztiak baldintzatzen dituelako**. Gurea ez da erreforma-programa konkretu bat: **gerra kulturalerako tresna bat eta ekintza politikorako gida bat da**. Konkretutik abiatuta Estatu Sozialista eraikitzearen beharra ulergarri egiteko modu bat da eta aldi berean, bizi-baldintzen aldeko borroka bakoitza etxebizitzaren arazoa erabat deuseztatzerara norabidetzeko bide bat.



# ETXEBIZITZAREN ALDEKO BORROKARAKO

proposamen politikoa

# 04

# IRABAZI KAPITALISTAREN AURKA, DOAKO ETXEBIZITZA

## 01 Alokairuen, hipoteken eta zorraren abolizioa

Sistema kapitalistan etxebizitza merkantzia bat da definizioz, baina ez da edozein merkantzia: nahitaez kontsumitu beharreko salgaia da. Langile-klaseak, etxebizitza bat eskuratu behar duen guztietan, merkatura jo behar du: izan aldi baterako kontsumorako –alokairua–, izan epe-kako erosketa moduan –hipoteka–. Horrela, langileek lanpostuan irabazitakoaren zati bat kapitalisten eskuetara itzultzen da.

Burgesiak etxeak eraikiz, salduz eta alokatuz lortzen du bere irabazia, horretarako baliabideak edukitze hutsagatik: lurraren jabetza, eraikitze-ko baliabideak, lizentziak... Eta hori guztia ez izateagatik, bizi ahal izateko ordaintzera behartuta dago langile-klasea. Alde batean irabazia dena, beste aldean sakrifizioa da. **Etxebizitzagatik ordaintzea klase dominazioaren ondorio bat da, eta hura iraunarazteko modu bat; horregatik diogu arazoa ez dela alokairuen edo hipoteken gehiegi-zko prezioa soilik, etxebizitza batengatik ordaindu beharra baizik.**

Gaur egungo gizartearen garapen tekniko eta produktiboak kalitatezko etxebizitza bat doan eskuratzea ahalbidetu dezake, baina, horretarako, hori posible egingo duen sistema bat behar da. Eraikitako etxebizitza guztiak hainbat langile-belaunaldiri ustiatutako lanaren emaitza dira, eta horregatik langile guztienak dira eta haien kontrolpean egon behar dute. Horregatik guztiagatik, **etxebizitzarako sarbidean dauden forma burges zabalduenak seinalatzen ditugu –alokairua eta hipoteka–, eta horien abolizioaren aldeko apustua egiten dugu.** Gainera, etxejabeekin eta bankuekin egindako zorra diziplinatze eta mendeko-

tasun mekanismotzat jotzen dugu. Ondorioz, alokairuak eta hipotekak desagertzearen beharrezko osagarria zorraren abolizioa da.

## 02 **Espekulazioaren eta errentismoaren amaiera**

Dagoeneko adierazi dugu etxebizitza-merkatuak langile-klasearengandik burgesiaren errenta-transferentzia estrukturala eragiten duela. Errenta-transferentzia hori, kapitalismoan, modu sistematikoan gertatzen da, baina haren adierazpenik gordinena espekulazioa da, eta horren sustatzaile nagusia finantza eta higiezin burgesia. Espekulaziotzat hartzen dugu merkantzien erosketa –kasu honetan, etxebizitzarena–, prezioak igo eta berriz ere salgai jarri arte horiek pilatzeko helburuarekin. Bere inbertsioak arrakastatsuak direla ziurtatzeko, burgesiak operazio ezberdinak burutzen ditu besteren lanaz jabetu ahalizateko, soldaten arpilatzearen bitartez: higiezin parkea bereganatzen saiatzen da errentak monopolizatzeko, prezioen igoera bultzatzen du, lege-aldaketak sustatzen ditu etxebizitzak hutsik mantentzen direla bermatzeko... Zentzu honetan, **espekulazioa da etxebizitzaren prezio eskuraezinen funtsezko arrazoi bat.**

Hala ere, etxebizitzaren negozioa ez da espekulaziora mugatzen. **Klase ertain errentatzailea ere, bere bizi-mailari eta posizio pribilegiatuari eusteko, etxebizitzaren jabetzan oinarritzen da.** Izan hileroko alokairua kobratuz, izan jabetzak salduz, kontsumo-maila handiaz gozatzeko gaitasuna dute, lanarekiko independentzia handiagoa dute, eta, oro har, maizterrek ez duten segurtasunaz eta lasaitasunaz gozaten dute bizitza kapitalistaren gorabeheren aurrean. Horregatik, klase ertain errentatzaile honek, higiezin merkatuan jabe handiekin lehian egon arren, haien interes berberak ditu funtsean; biek lortzen dute onura prezioen igoeragatik, biek sustatzen dituzte jabetza pribatua babes-

teko mekanismo guztiak, biek gauzaten dituzte etxegabetzeak ez-ordaintzeen aurrean...

Arestian azaldutako guztiagatik, etxebizitzaren negozioa amaitzearen alde egiten dugu, bai bere modu basatienean –espekulazioa–, bai sektore errentatzaileek gauzaten duten moduan. Doako etxebizitza baten aldeko apustuak zera dakar berekin: alde batean desjabetzea eta bestean irabazia produzitzen duten **besteren lanaz jabetzeko forma guztiak ezabatzea**.

### 03 Miseriazko etxebizitza sozialari ez

**Estatu burgesaren funtzioa irabazi pribatua bermatzea da**, beraz, etxebizitzaren arazoari aurre egiten dionean eta miseriari heltzen dionean, horren kudeaketak irabaziari ez eragitea eta are irabazia handitzeko aukera ematea bermatu behar du. Estatuak etxebizitzaren arazoa partzialki arintzeko garatzen dituen formula desberdinek horren berri ematen dute: alokairu sozialetatik hasi eta aterpetxeetaraino, horiek guztiak miseriazko alternatibak dira, eta eragile pribatu zein publikoak “pobreei bideratutako” etxebizitzaren eraikuntzatik eta kudeaketatik aberastea ahalbidetzen dute.

Kapitalaren ezkerreko alderdiek ez diote logika horri ihes egiten; izan ere, **etxebizitzaren arazoa arintzeko sozialdemokraziaren proposamen nagusietako bat etxebizitza soziala da**. Era honetako proposamenak kapitalistek sortutako miseriaren kudeaketa arazo politiko bihur ez dadin eta, gainera, errentagarria izan dadin bermatzeko norabide berean kokatzen dira. Alde batetik, **etxebizitza soziala ez da baldintzarik gabe eta modu iraunkorrean eskaintzen**, baizik eta aldi baterako kontratuen, sarbide-irizpide burokratikoaren eta kontrol-mekanis-

moen bitartez. Sozialdemokraziak ez du etxebizitza eskubide unibertsal gisa ulertzen, irabazi beharreko zerbait bezala baizik. Alternatiba horiek guztiek, ordainetan, Estatuaren kontrol eta burokraziari, maizterrak diziplinatzeko zentzugabeko araudiei, gizarte-zerbitzuen xantaiari eta beste hainbat mekanismori men egitea exijitzen dute. Hau da, etxebizitza sozialean merkatuaren uztarria Estatuaren uztarriaz ordeztzen da, neurri batean.

Bestalde, **etxebizitza soziala eskaintzen da soilik baldin eta irabaziak sor baditzake**. Horregatik, beti dakar berarekin ordainketaren bat, eta beti izaten ditu kalitate-baldintza oso baxuak. Higiezinaren eraikuntzarako enpresek, enpresa kudeatzaileek, Estatuak, mota guztietako ONGek, hornidura-enpresek eta abarrek, negozioa egiten dute etxebizitza sozialen eraikuntzarekin eta kudeaketarekin. “Pobreei bideratutako” etxebizitzak direnez, Estatuaren baliabideak bereganatzen dituzte, kalitate txarreko materialak erabiltzen dituzte, aurreordainketako sistemak inposatzen dituzte eta etxebizitza sozialen eraikuntza bultzatzen dute.

Sozialdemokraziak etxebizitza soziala irtenbiderik errealena bailitzan aurkezten digu, gaitzik txikiena gaitz handiago baten aurrean: inolako etxebizitza sozialik ez izatea. Hala ere, badakigu errezeta hori miseriazko etxebizitza sozialarena dela, eta horri kontrajartzen dioguna etxebizitza sare baten etengabeko hedapena da, **etxebizitza horietarako sarbide librea eta proletalgo antolatuak horien gaineko kontrola izatea bermatuko dituen**a.



## 04 Putre funtsen eta bankuen espropiazioa

Putre funtsak eta bankuak bezalako kapital handiak higiezinaren parkearen zati handi baten jabe dira. **Botere ekonomiko horren bidez, eragin sozial eta politiko nabarmena lortzen dute**, eta, esaterako, hirigintza-planetan zein erreforma legegileetan esku hartzeko presio-talde antolatu gisa jarduten dute. Etxebizitzaren merkatuak, merkatu errentatzaile gehienek bezala, monopoliora eta jabetzak gutxi batzuen eskutan kontzentratzera jotzen du. Joera hau indartu egiten da krisi-garaietan, baldintza berdinetan lehiatzeko baliabiderik ez duten jabeek beren jabetzak albo batera utzi behar dituztenean. Beraz, **krisiak kapital handien boterea indartzen du**.

Funts eta banku handien etxebizitzak espropiatzeak irabazia espropiatzea esan nahi du, zeinak kasu honetan etxebizitzaren forma hartzen duen eta kapitalistek bereganatutako besteren lanean duen jatorria. Hau da, milioika pertsonaren desjabetze-prozesutik eta arpilatutako baliabideen gainean eskuratutako eskubideetatik datorren irabazia, errentak metatzea ahalbidetzen diena. **Hori zuzenean kontrajartzen zaio edozein jabetzaren balizko konfiskatze bati**. Badira etxebizitza ordaintzeko urte luzeetan zehar haien soldata burgesiari transferitzen ibili diren langileak, gaur egun etxebizitza hori jabetzan dutenak. Haien etxea soldata da, baina etxebizitzaren forman; kontsumorako ondasuna, alegia. Funtsen eta bankuen etxebizitzak higiezinaren sektorean inbertitutako kapitala dira, irabazi handiagoa eta botere sozial handiagoa ekarriko dutenak.

Gauzak horrela, **etxebizitza bat modu unibertsalean eta doan bermatzeaz hitz egiten dugunean, kapitalisten irabaziari eraso egiteaz ari gara**; bankariak okerrago bizi behar dira bizi-kalitate hobe bat modu unibertsalean orokortu ahal izateko. Ez gara ari Estatu burgesak zenbait jabetza estatalizatzeaz, baizik eta proletalgo antolatuak putre funtsen,

bankuen, administrazioen eta Elizaren etxebizitzaren gaineko kontrola hartzeaz.

## 05 Hirigintza kapitalistaren eta espazioaren bereizketa klasistaren aurka

Sistema kapitalistan, **hirigintza etekin ekonomikoa lortzeko irizpideei jarraiki garatzen da**, eta ez jendearen ongizateari jarraiki. Horrek ondorio nabarmenak ditu pertsonen bizitzan zein ingurumenean: eraikuntzarako bultzada aseeginak baliabide naturalak kontsumitzen ditu eta etengabe espazio berriak okupatzen ditu eraikuntza-enpresen diru-gosea elikatzeko.

Gainera, **hirigintza kapitalistak espazioaren bereizketa klasista eragiten du; zenbait eremu degradatu eta beste zenbait balorizatzen ditu**. Alde batetik, burgesiarentzat diseinatutako espazioak, kalitate oneko etxebizitzekin, aisialdirako espazioekin eta beharrezko zerbitzu guztiekin. Eta, bestetik, erabat masifikatutako guneak, zerbitzuak gainezka dituztenak eta pertsonen ongizatera bideratutako lekurik ez dutenak –berdeguneak, kirol-guneak...–. Espazio horietako batzuk birgaitzeko eta eraldatzeko planek proletalgora beste eremu batzuetara kanporatzen dute azkenean; izan ere, merkatuaren logikari jarraiki, eraldatutako espazioak garestitu egiten dira, eta garestiegiak dira han bizi ziren askorentzat.

**Bereizketarako joera hau sakontzen duen fenomenoetako bat turistifikazioarena da.** Zenbait lurralde masa-turismora bideratzen dira, egun batzuetan zehar esperientzia gisa kontsumitzeko prestatzen dira, eta gero eta etxebizitza gehiago turistak jasotzeko erabiltzen dira. Eremu horietan ugariak dira pisu turistikoak edo *AirBnB* bezalako enpresak, prezioen goranzko joeran eragin eta langileria kanporatzen dutenak.

Langile-klasea *ghettifikatu* eta lekualdatu, ingurumena suntsitu zein baliabideak arduragabekeriaz erabiltzen dituen hirigintzaren aurrean, **Estatu Sozialista baten alde gaude, espazioaren eta baliabide materialen arrazoizko eta bidezko erabilera egingo duena.** Espazioa biztanleen ongizatea maximizatzeko helburuz planifikatu eta antolatuko duen sistema bat, eta ez irabazi kapitalistak gidatuta.

## PERTSONA GUZTIENTZAKO ETXEBIZITZA

### 06 Etxegabetze guztien etetea

Langile-klaseko milaka familia etxebizitza galtzeko mehatxu eta beldurpean bizi dira, bai ezin dutelako ordaindu, bai jabeek irabaziak handitzeko maizterrak kaleratu nahi dituztelako. **Etxegabetzeak ez dira soilik bide legaletik ematen, hainbat modu daude proletalgoa bere etxebizitzatik kanporatzeko:** sarraila aldaketak, kontratuen ez berritzeak, errentaren igoera onartezinak, abusuzko klausulen inkorporazioa, denboraldiko kontratuak eta kontratu irregularrak, talde parapolizialen presioak, hornidura-mozketen bidezko xantaiak, etxejabeak etxeko intimitatea etengabe urratzea...

Horregatik diogu etxegabetzea ez dela soilik bide judizial edo polizialetik exekutatu-tako kaleratzearen unea soilik. Horiek, diru-sarrera gutxien duten langileak beraien etxebizitzetatik pixkanaka kaleratzeko, jabeek, putre funtsek, bankuek eta Estatuak inpunitate osoz exekutatu-tako prozesu orokor baten adierazpen ezagunena baino ez dira. Hortaz, **etxegabetze prozesuaren parte dira proletalgoa beren etxebizitza**

## uztera behartzeko ekintza guztiak.

Horren aurrean, **langileria etxebizitzatik kanporatzeko modu guztiak baldintzarik gabe eta betiko etetea aldarrikatzen dugu.** Horrekin lotuta, ez dugu pertsona bat etxerik gabe uzteko inolako justifikazio moralik onartuko, izan lan bila ez egotea edo Estatuak eskainitako miseriazko alternatibak ez onartzea. Etxegabetzeak desagerrarazteko beharrezkoa da proletalgoarentzako kalitatezko etxebizitza bermatzea edozein unetan, inoiz ez dezan bere burua etxetik kanporatua izateko arriskuan eta baldintza berdineko edo hobeko etxebizitza bat eskuratzeko gaitasunik gabe ikusi.

### **07 Filtro arrazista, burokratiko eta ekonomikoen ezabapena**

**Burgesiak bereizketak eta zapalkuntzak sustatzen ditu langile-klasearen baitan, hura zatitzeko eta bere irabaziak are gehiago handitzeko.** Proletalgoaren zati handi batek kalitatezko etxebizitzara duen sarbidea mugatzeko filtro gisa jokatzen duten hainbat egitura eta instituzio daude, langile-klasearen gaineko presioa areagotzen dutenak. Horren adibide dira, esaterako, alokairuen gestioaz arduratzen diren eta etorkizuneko maizterrak aukeratzeko jatorri edo arrazaren araberrako irizpideak darabiltzaten inmobiliariak; berankortasunaren kontrola daramaten enpresak, ez ordaintzearen aurrekariak daudenean errentak igotzen dituztenak; aurrezkirik gabeko pertsonentzako alokairua ezinezko egiten duten gehiegizko fidantzak, edo Estatuak eskaintzen dituen bizitzeko baliabideetarako sarbidea zailtzen duten filtro burokratikoak.

Horrez gain, aipagarria da ere **hipotekak emateko bankuek exijitzen dituzten abalek jokatzen duten papera**, proletalgoak ezin baititu abal

horiek bere gain hartu. Proletalgoa, eta batez ere gazteria langilea, etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko aukeratik baztertzeke helburua duten neurrigabeko baldintzak ezartzen dira. Horrela, etxebizitza burgesiaren irabazi iturri eta klase ertainaren posizio pribilegiatua erreproduzitzeko mekanismo izatea bermatzen da.

**Filtro horien guztien aurka borrokatzea** ezinbestekoa dela deritzogu. Horien erabateko ezabapena lortzeko beren existentzia ikusarazi eta jokatzen duten papera salatu behar dugu. **Kalitatezko etxebizitzara sarbidea baldintza berberetan ziurtatzea** funtsezkoa da, proletalgoak jasaten dituen zapalkuntzak eta subordinazioa betikotzeko esparru bat gehiago izan beharrean, etxebizitza proletalgoaren bizitza garatzeko bitartekoa izan dadin.

## 08 Etxebizitza segurua; erasotzaile, etxejabe eta poliziarik gabea

Sistema kapitalistan **etxebizitza ez da espazio seguru bat proletalgoarentzat**. Etxebizitzaren merkantzia izaerak non eta norekin bizi askatasunez erabaki ahal izatea eragozten dio, arrisku eta muturreko zaurgarritasun egoerak onartzera behartuz. Adibidez, asko dira beren erasotzaileekin bizitzera behartuta dauden emakumeak, ez baitute egoera horretatik irteteko gaitasun ekonomikorik. Zentzu horretan, **etxebizitzak espazio seguru izateak zera esan nahi du: proletalgoak inongo erasorik jasango ez duen espazioak izatea**.

Gainera, etxebizitzen segurtasuna egiturazko –beheko solairuetako etxebizitzak, neurri txikiak, logelaka zatitutako etxebizitzak, etab. – edo kontratuzko ezaugarrien arabera baldintzatuta dago. Izan ere, horiek intimitaterako eskubidea, pribatutasuna eta bizi-espazioen erabilera pertsonala galarazten dute. Horregatik, garrantzitsua da, lehenik, bizilekue-

tan eta maizterren bizitza pertsonalean etxejabeen bortxazko sarraldiak borrokatzeko **defentsarako mekanismoak sortzea**; eta bigarrenik, **proletalgoaren etxebizitzak Estatu kapitalistaren esku-sartzeen aurrean espazio seguruak direla bermatzea**. Hau da, poliziaren edo kontrol eta diziplinamendurako organo burokratikoaren sarraldien aurka borrokatu eta bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea defendatzea.

## KALITATEZKO ETXEBIZITZA

### **09 Etxebizitzaren kalitate galerari eta infraetxebizitzari ez**

Etxebizitzaren negozioak irabaziak handitzeko aukera ematen dien edozein egoeraz probestera bultzatzen ditu jabeak. Soldaten arpilatzea handitzen ari den testuinguru honetan, non prezioak etengabe igotzen ari diren eta etxebizitzara bideratu behar dugun diru kopurua handiagoa den, **etxebizitzaren kalitatea galtzen ari da, bai termino absolutuetan zein erlatiboetan**: merkatura egoera txarrean ateratzen diren etxebizitzaren kopuruak gora egiten du, eta gainera, gero eta kalitate txarragoa eskuratzen dugu, prezio altuagoengatik.

Fenomeno orokor hori **are gordinagoa da proletalgo pobretuenaren kasuan**, baldintza negargarriak onartzera behartuta ikusten baitu bere burua: unitate txikietan zatikatzen diren pisuak; etxebizitza bilakatzen diren ganbara, etxabe eta lonjak, zeinetan maizterrak pilatuta bizi diren, literak partekatuz... Etxebizitzaren negozioaren bidez ahalik eta irabazi handienak lortzeko grinak egoera osasungaitzean dauden infraetxebizitzak alokairuan jartzera bultzatzen ditu sektore errentatzaileak.

**Kalitatearen galera ofentsiba kultural baten eskutik dator**, egungo baldintza teknikoek bermatu ahalko luketen bizi-mailaren oso azpitik dauden bizi-estandarrak normalizatu eta are desiragarri egin nahi dituenak. Kapitalistek alternatiba “moderno”, “jasangarri” eta “komunitario” gisa saltzen dizkiguten miseriazko bizitzak onarrarazi nahi dizkigute. Egungo egoeran, eredu horien funtzioa ez da baliabideen kudeaketari buruzko eztabaida arrazional bat irekitzea, baizik eta **gutxi batzuek luxuzko kontsumoa duten bitartean, beste asko baldintza miserabileekin konformatuko direla bermatzea**. Izan ere, kapitalismoan, askoren miseria gutxi batzuen aberastasun-pilaketaren ondorio da: alde batean infraetxebizitzak eta bestean luxuzko etxeak. Hala ere, egungo baldintzek aukera ematen dute, gure gaitasunen eta baliabideen kudeaketa arrazionalaren bidez, pertsona guztientzako etxebizitza bat ziurtatzeko, egungo batez bestekoa baino kalitate-baldintza askoz hobean.

## 10 Horniduren mozketen amaiera

Etxebizitza bat kalitatezkoa izateak, besteak beste, beharrezko hornidura guztiak izatea esan nahi du –ura, argia, gasa...–. Gaur egun, milaka pertsonak ez dituzte oinarrizko hornidura horiek, bai beharrezko instalazioak ez dituztelako, bai ordaindu ezin dituztenez moztu egin dizkietelako edo jabeek hornidura mozketak presio-bide gisa erabiltzen dituztelako. Horregatik, **ez ordaintzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik gauzatutako hornidura mozketen abolizioa exijitzen dugu**. Oinarrizko bitartekoak doakoak eta unibertsalak ez diren bitartean, beste baliabiderik izan gabe enpresa elektrikoen eta bestelako hornitzaileen inposizioak desobeditzen dituztenak defendatzen ditugu.

## II Garapen pertsonal askerako etxebizitza-sistema baten alde

Etxebizitzaren prezio altuak zuzenean baldintzatzen du proletalgoak pertsonalki garatzeko duen gaitasuna, eta, askotan, **oztopo bihurtzen da bere bizi-proiektuak garatzeko**: familia-unitateak sortzeko edo desegiteko aukera askea zailtzen du, premia bereziak dituzten pertsonak familietatik eta inguru sozialetik aldentzera behartzen ditu, adinekoak bakardadera kondenatzen ditu, proletario gazteak independizatzea eragozten du, lan-zentroetatik urrun bizitzera behartzen ditu langileak edo ikasleei beren ikastetxeetatik gertu dauden pisuetarako sarbidea oztopatzen die.

Gure ustez, **etxebizitzak oinarrizko biziraupenerako bitarteko hutsa baino gehiago izan behar du, eta ezin du oztopo izan proletalgoaren aspirazioetarako**. Horretarako, biziraupena eta garapen pertsonal askea ahalbidetzen dituen bitarteko gisa ulertu behar da etxebizitza. Etxebizitza sistema sozialista bat ez litzateke mugatuko herritar guztientzako kalitatezko etxebizitza bat bermatzera, baizik eta guztien askotariko premia aldakorrei erantzun beharko lieke, justizia eta unibertsaltasun printzipioen arabera.

Zentzu horretan, **espazioaren erabilera pertsonala defendatzen dugu, espazio intimo eta pertsonalak eratzeko beharra, eta norberaren erabilerarako eta sarbide pertsonalerako eskubidea**. Hala ere, horren ezinbesteko osagarria espazio kolektiboen eraikuntza da. Izan ere, intimitaterako eskubideak ez dakar berarekin lan erreproduktiboak indibidualki gauzatzea bultzatzen duen bizi ereduaren defentsarik, non urriak diren eta ingurumenean eragin handia duten baliabideak xahutzen diren, komunean egin daitekeena etxe-unitateetan banatuz, edota non isolamenduari eta bakardadeari aurre egiteko aisialdi eta sozializazio espaziorik bermatzen ez den. Azken batean, etxebizitzak



irizpide horiek betetzeko eta, beraz, garapen pertsonal eta espirituale-rako bitarteko izateko modu bakarra etxebizitza sistema sozialista bat eraikitzea da, zeinetan etxebizitzak negoziatorako eta irabazirako baliabide izateari utziko dion.

## ESKUBIDE POLITIKOEN HEDAPENA

### **12 Etxejabeen inpunitatearen aurka**

**Etxebizitza bat edukitzeak egiturazko botere-posizioa ematen dio jabeari maizterren aurrean.** Jabe handiek eta errentatzaile txikiek, haien interesak defendatzeko, legaltasun burgesera jo dezakete, baita zigorgabetasun osoz legedia hori urratu ere. Izan ere, etxebizitzaren jabetza pribatuak ematen dien ekintzarako ahalmenaren aurrean edozein eskubide formal paper errea besterik ez da.

Etxejabeak lege burgesaren babes du, zeinaren helburu esplizitua jabetza pribatua ziurtatzea den. Jabetza-eskubidea betearazteko lege-mekanismo ugari dauden bitartean, **ez dago mekanismo errealik jabeek legearen arabera dituzten obligazioak bete ditzaten:** ez dago modurik fidantzen ordainketak egiaz betearazteko, alokairu-kontratu baten erregularizazioa exijitzeko, gutxieneko osasungarritasun-baldintzak mantentzera behartzeko, haien presioak eta mehatxuak baliogabetzeko edo legez kanpoko etxegabetzeak saihesteko. Errentatzaileek legearen mugetatik kanpo jardun dezakete, eta legezko errekerimenduak urra ditzakete inolako ondoriorik jasan gabe. Honen kausa ez da legea gaizki formulatuta dagoela, eta ezin da konpondu legezko bideetatik. Jabetzak metatzen dituztenek botere soziala ere metatzen dute, eta jabetza-

rik ez dutenak beti egongo dira menpeko posizioan.

Jabeen zigorgabetasunaren eta maizterren egiturazko babesgabetasunaren aurrean, **proletalgoaren interesak defendatzeko modu bakarra antolakuntza eta autodefentsa dira**. Borrokaren bidez soilik amaitu ahal izango dugu etxejabeen inpunitatearekin.

## **Etxebizitza hutsak okupatzeko 13 eskubidea**

Etxebizitza-sistema kapitalistaren beste ondorio bat da, **milioika pertsonak etxebizitza baterako sarbiderik ez duten bitartean, salduak izateko zain dauden pisu hutsak ugaritzea**. Horrela, bi polo handi sortzen dira: batetik, bizileku bat ordaindu ezin duten pertsonak, eta, bestetik, etxebizitzak prezio merkeagoetan saldu edo alokatzea baino hutsik mantentzea nahiago duten etxejabeak. Ikuspuntu etiko batetik, ba al da hau baino irrazionaltasun handiagorik?

Desjabeak sortu eta aldi berean etxebizitzak erabili gabe mantentzen dituen sistema batean, **okupazioa etxebizitzarako sarbidea bermatzeko modua da proletalgoaren zati handi batentzat**. Ildo horretan, etxebizitza hutsak okupatzeko eskubidea defendatzen dugu, espazio bat etxebizitza gisa erabiltzeko eskubidea gailentzeko modu gisa, merkatuan izan dezakeen balioaren ginetik.

Krisi-garaietan, etxe bat eskuratu ezin duten pertsonen kopurua igo egiten da, eta handitu egiten da errentatzaileek etekinak ekar diezazkieketen jabetzen gainean duten interesa. Testuinguru honetan, zeinetan benetako arazoa proletalgoaren etxebizitzarako sarbidea den, **burgesiak okupazioaren aurkako ofentsiba politiko, kultural eta poliziala** darama aurrera, hau lehen mailako arazo sozial bihurtuz. Horrela, prakti-

ka honen kriminalizazioa areagotzen da, desalojo-prozesuak azkartzen dira, enpresa parapolizialak ugaritzen eta normalizatzen dira...

Argi daukagu pertsona guztientzako kalitatezko etxebizitza bermatuko duen Estatu Sozialista existitzen ez den bitartean, etxebizitza hutsak okupatzea beharrezkoa izango dela proletalgoarentzat. Okupazioa kriminalizatzeak egiturazko arazo baten erantzukizuna indibidualizatzen du, eta oinarri gisa balio du joera politiko antiproletario eta argiki faxistentzat. Horregatik, garrantzitsua da **hutsik dauden etxebizitzak okupatzeko eskubidea defendatzea**: lege-erreformen aurka borrokatzea, desokupazio-enpresen esku-hartzeen aurka borrokatzea, legez kanpo nahiz legalitate burgesaren arabera egindako desalojoen aurka borrokatzea, eta etxebizitza okupatuetan bizitzea zailtzen duen aparatu burokratiko guztiaren aurka antolatzea.


## **Etxebizitzaren aldeko borrokaren 14 kontrako errepresioari ez**

**Antolakuntza eta borroka dira proposamen politiko honetan jasotako puntuak ezartzeko berme bakarra.** Aukera horren aurrean, eta Estatuak etxebizitzaren arazoa konpontzeko duen ezintasunaren aurrean, burgesiak borrokari ekin diogunon aurkako errepresioa erabiltzeko erabakia hartzen du. Gainera, sistema judizial honek atzerritar jatorriko milioika pertsona legez kanpo uzten ditu eta borroka politikoetan parte hartzea galarazten die: herritar-estatusik ez dutenez, ez dira biltzeko, elkartzeko eta protestatzeko eskubideen onuradun, ezta formalki ere, eta, beraz, haientzat are zailagoa da edozein eremu politikotan antolatzea.

**Eskubide politikoak proletalgoaren geruza guztietara zabaltzeko** antolatuko gara, jatorrizko lurraldearen arabera bereizketarik gabe,

edonor etxebizitzaren aldeko borrokan subjektu politiko aktiboa izan dadin. **Borrokarako baldintzen eta eskubide politikoek aurkako edozein erasoren aurrean defendatu** behar dugu geure burua, proletarioaren bizi-baldintzen defentsan antolatzeke aukerak mehatxatzen dituzten mekanismo judizial, polizial zein parapolizial guztiei aurre egingez.





Kalitatezko etxebizitza, doakoa eta unibertsalaren alde,  
Estatu Sozialista eraiki





Euskal Herriko

**Etxebizitza**

**Sindikatu**

**Sozialista**